

# 60 ZINEBI BI

## ZINEBI NETWORKING 2018:

Dokumentalen sorgunea  
FORO PROFESIONAL DE  
CINE DOCUMENTAL DE BILBAO

AZA 12 - 13 NOV  
Sala Cúpula  
Campos Antzokia





[www.zinebi.eus](http://www.zinebi.eus)  
#zinebi60



# 60 ZINE BI

International Festival  
of Documentary  
and Short Film of Bilbao

+34 94 42486 98  
Colón de Larreategui 13, 3º izq.  
48001 - BILBAO  
info@zinebi.eus  
www.zinebi.eus

 zinebifestival  
 @ZinebiFEST  
 zinebifilmfest  
 Zinebi Bilbao

# AURKIBIDEA

## ÍNDICE

### 4 **AURKEZPENA**

### 6 PRESENTACIÓN

### 8 **COMMISSIONING EDITORS**

8 Aintzane Pérez Del Palomar Bilbao

8 Alejandra Trelles Cervetto

9 Anna Solà Arguimbau

9 Arri Granados Cárdenas

10 Belí Martínez

10 Maui Alena

11 Mercedes Álvarez

11 Virginia García Del Pino

### 12 **PROIEKTUAK**

#### PROYECTOS

12 Aztarnak - Huellas

13 Beleak

14 Bidean jarraituz

15 Itoiz

16 Meseta

17 Muru (Semillas)

18 Un tipo diferente

19 Wan Xia, la última luz del atardecer

# ZINEBI NETWORKING 2018.

## BILBOKO ZINE DOKUMENTALARI BURUZKO FORO PROFESIONALA

Aurreko edizioetan bezala, ZINEBIk eta Euskal Produktoreen Elkarteak (EPE-APV) bertoko zuzendarien aldeko apustua egiten jarraitzen dute, baita ikus-entzunezko euskal sektorearen hazkunderen aldeko apustua ere. Jaialdiaren 60. edizio honetan, ZINEBI NETWORKING 2018. Dokumentalen sorgunea aurkeztu nahi dugu. Bilboko Zine Dokumentalari buruzko Foro Profesionalak Euskal Telebistaren (ETB), Bizkaiko Foru Aldundiaren (BEAZ) eta Bilbao Ekintza erakundearen babesa dauka.

Apustua irabazteko, gure helburu nagusia da bertoko ikus-entzunezko sarea dinamizatzea eta zine arloan diharduten bertoko zein nazioarteko eragile eta instituzio arteko harreman eta lankidetzaz garatzea.

Uste dugu egun eraikitzen ari diren testuinguruan nagusi direla globalizazio ekonomikoa, informazioaren teknologia berriak eta mundu mailako komunikazioa -nonahi ikus ditzakegu *eremu global eta iraultza digital* gisa ezagutzen diren paradigmatzuk-. Uste hori abiapuntu hartuta, ikus-entzunezko industriak rol erabakigarria dauka edozein herrialdetako kulturaren garapenean, hazkunde ekonomikoan eta kalitatezko enpleguaren areagotzean.

Ikuspegi horretan oinarrituta, beraz, zine dokumentalak enpresen hazkunde ekonomikoari eta horien ondoz-ondoko berrikuntza teknologiko zein artistikoei bultzada emateko balio izan du historian zehar. Izan ere, zinearen historiako lehendabiziko grabazioak dokumentalak izan ziren, eta horien gainean eraiki eta garatu izan da zinearen industria berria. Egunerokotasuna islatzen zuten eszena haiek (lantegitik irteten ari diren langileak edo geltokira iristen den tren) ikusleen interesa pizten zuten zinearen lehen urrats haietan. Irudi dokumentalak ikusleen errealitateetik hain hurbil egoteak jakin-mina eta identitate-sentsazioa eragiten zituen publikoarengan, eta ikasketa pertsonal zein kontzientzia soziala pizten zituen. Zentzu horretan, ikus-entzunezko gainerako produkzioak bezala, dokumentala ere tresna eraginkorra da kohesio kulturala sustatzeko, baita tamaina ezberdinetako lurralde eta komunitate politiko askotan gizarteratzea eta oreka zibila ahalbidetzeko ere.

Horrekin lotuta, garrantzitsua da azpimarratzea, adibide gisa, Euskadi gisako herri txikien kasua. Hemen, ikus-entzunezko industriari esker, ikono eta imajinario sozial berri eta ahaltsuek ezohiko sortze-gaitasuna erakutsi zuten joan den mende osoan zehar, betiere herriaren identitate kultural, sozial eta politikoaren zerbitzura.

Dokumentalak funtzio bera betetzen du gaur egun, eta askatasun horren berezitasuna gordetzen jarraitzen du, hala enpresa nola sorkuntza arloari dagokionez. Izan ere, dokumentalen produkzioa

erabat aldentuta dago fikziozko zine-merkatu handien kostu izugarrietatik. Hortaz, ikus-entzunezko sektorearen baitan, I+G+Dari lotutako funtsezko eremu bat da dokumentala. Zinemagile eta produktore askok hasi eta garatu dute arlo hau, batzuetan genero honetan lan egiten jarraitzeko, eta besteetan ikus-entzunezko sorkuntza eta produkzioaren beste alor batzuetara jauzia egiteko.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, eta proiektu dokumental sortzaile eta independenteei babesa emateko asmoz, Foro-Networking honen helburua da etorkizunera begirako plataforma bat eskaintzea. Izan ere, horrelako gune bat ezinbestekoa da Euskal Herriko ikus-entzunezko sektorearen garapen artistiko eta profesionala gauzatzeko; betiere, esperientzia, kezka eta interesak estimulatu eta elkartrukatzera bidean, eta dokumental-proiektu berriak garatzeko sinergiak sortzera bidean. ZINEBIren ustez, aukera paregabea da hau gure arteko talentu gazteak profesional eta adituekin harremanetan jartzeko, parte-hartzaileek proiektuak arrakastaz garatzeko aholkularitza jasoko baitute. Hala, sorkuntza, hausnarketa eta aholkularitza bideratzeko espazioa izango da ZINEBI NETWORKING 2018. Topaketa-dinamiken bitartez, sortzaile gazteei bultzada emango dien baliabide garrantzitsua izango da, bertan parte hartuko baitute belaunaldi berrietako zine-ekoizpenean parte hartzen duten eta berau babesten duten zuzendari, produktore, instituzio eta sektoreko gainerako eragileak.

Euskal produkzio independentea bultzatu eta nazioartean duen potentziala proiektatze aldera, proiektu irabazleak 10.000 €-ko saria jasoko du, baita bere ikus-entzunezko proiektua baldintzarik onenetan gauzatzeko aholkularitza profesionala ere.

Aurkezten diren proiektu guztien artean, ZINEBITik kanpoko hautaketa-batzorde batek zortzi lan aukeratuko ditu gehienez, jaialdiko Zuzendaritzaren laguntzaz. Hautaketa horretan, batzordeak kontuan izango ditu proiektu bakoitzaren ideia, proposamen estetikoa, bideragarritasun ekonomikoa eta berau gauzatzeko aukerak. Gainera, aurkezpen publikoa egin baino lehen tutoretza pertsonalizatuak izateko aukera ere eskainiko da, sektoreko profesional baten eskutik.

**Carlos Juárez**

EPE-APVko presidentea

**Vanessa Fernández Guerra**

ZINEBIko zuzendaria

# ZINEBI NETWORKING 2018.

## FORO PROFESIONAL DE CINE DOCUMENTAL DE BILBAO

Como en ediciones anteriores, ZINEBI y la Asociación de Productores Vascos (EPE-APV) mantienen su apuesta por impulsar el talento de nuestras realizadoras y realizadores y el crecimiento del sector audiovisual vasco. En esta 60ª edición del festival presentamos el ZINEBI NETWORKING 2018. Dokumentalen sorgunea. Foro Profesional de Cine Documental de Bilbao, que cuenta además con el apoyo de Euskal Telebista (ETB), la Diputación Foral de Bizkaia (BEAZ) y Bilbao Ekintza.

Para ganar esta apuesta, nuestro objetivo es favorecer la dinamización del tejido audiovisual local y el desarrollo de la interrelación y la cooperación entre los diferentes agentes e instituciones vascas y los agentes e instituciones internacionales del sector cinematográfico.

Partimos de la convicción de que en el actual panorama que están dibujando la globalización económica y las nuevas tecnologías de la información y la comunicación a nivel mundial- los omnipresentes paradigmas conocidos como *aldea global* y *revolución digital*-, la industria audiovisual está llamada a jugar un papel decisivo en el desarrollo cultural, el crecimiento económico y el aumento del empleo de calidad en cualquier país.

Desde este punto de vista, el cine documental ha sido históricamente un género que ha contribuido al crecimiento económico de las empresas y a sus sucesivas innovaciones tecnológicas e incluso artísticas. De hecho, las primeras grabaciones de la historia del cine son documentales que están en la base del desarrollo posterior de la nueva industria del cinematógrafo. Aquellas escenas de la vida cotidiana, como los obreros saliendo de la fábrica o la llegada de un tren a la estación, ya despertaban el interés del público en los albores del cine. La proximidad de las imágenes documentales a la realidad de los espectadores causaba curiosidad y sentimiento de identidad, a la vez que facilitaba una herramienta de aprendizaje personal y de conciencia social. En este sentido, como el resto de las producciones audiovisuales, el documental constituye un instrumento eficaz para la cohesión cultural e incluso la integración social y la estabilidad civil de muchos territorios y comunidades políticas de mayor o menor tamaño.

Con respecto a esta cuestión, es preciso señalar, a modo de ejemplo, el caso de un país pequeño como Euskadi, en el que la industria audiovisual fue capaz de mostrar, a lo largo de todo el siglo pasado, una inusitada capacidad de creación de nuevos y poderosos iconos e imaginarios sociales al servicio de la identidad cultural, social y política del país.

El documental cumple hoy en día la misma función y conserva la particularidad de su libertad tanto empresarial como creativa, pues su producción está radicalmente alejada de los elevados costes

de los grandes mercados del cine de ficción. Es pues un campo fundamental de ID+i dentro del sector audiovisual, en el que muchos cineastas y productoras se han iniciado y desarrollado, con frecuencia para permanecer trabajando en este género o para dar el salto a otros campos de la creación y la producción audiovisual.

Atendiendo a las consideraciones precedentes, y con el objetivo de apoyar proyectos documentales creativos e independientes, este Foro-Networking pretende ser una plataforma con la vista puesta en el futuro, necesaria para el desarrollo artístico y profesional del sector audiovisual del País Vasco con el fin de estimular e intercambiar experiencias, inquietudes e intereses y crear sinergias en el desarrollo de nuevos proyectos documentales. ZINEBI lo considera una oportunidad única para que nuestros jóvenes talentos puedan ponerse en contacto con profesionales y expertos que prestarán su asesoramiento a los participantes sobre la forma de desarrollar con éxito sus proyectos. De este modo, ZINEBI NETWORKING 2018 será un espacio para generar creatividad, reflexión y asesoría, un valioso recurso que ofrecerá ese impulso a los jóvenes creadores gracias a una dinámica de encuentro entre directores, productores, instituciones y demás agentes del sector que apoyan y participan en la producción cinematográfica de una nueva generación.

Con el propósito de estimular la producción independiente vasca y proyectar su potencial internacional, el proyecto ganador será dotado con un premio de 10.000 € y recibirá asesoramiento profesional para ver realizado su proyecto audiovisual en condiciones óptimas.

De todos los proyectos presentados, un comité de selección externo a ZINEBI, junto con la Dirección del festival, seleccionará un máximo de ocho. En dicha selección, el comité tendrá en consideración la idea, la propuesta estética, la viabilidad económica y las posibilidades de la realización de cada proyecto. Además, habrá una sesión de tutorías personalizadas antes de su presentación pública, que vendrá avalada por un profesional del sector.

**Carlos Juárez**

Presidente EPE-APV

**Vanesa Fernández Guerra**

Directora de ZINEBI



## AINTZANE PÉREZ DEL PALOMAR BILBAO

Euskal Herriko Unibertsitatean Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua, Aintzane, ETBko salmenten departamentuaren arduraduna izan da 1991-1996 urteen bitartean. 2004 urtean Eurodoc graduate programan parte hartu zuen; nazioarteko koproduziodun dokumentalen garapenerako programa europarra. Proiektuen garapenean eta ekoizpe-nean egin du lan hainbat euskal ekoiztetxe independentetan eta, 2005 urtetik ETBko hedapen-eskubideen eta koprodukzioen arduraduna da.

Licenciada en Comunicación Audiovisual por la Universidad del País Vasco UPV/EHU, Aintzane ha sido responsable del departamento de ventas de ETB de 1991- 1996. En 2004 participó en el Eurodoc graduate: programa europeo para el desarrollo de documentales en coproducción internacional. Ha trabajado en labores de desarrollo de proyectos y producción en varias productoras independientes vascas, y desde 2005 es responsable de derechos de antena y coproducciones de ETB.




## ALEJANDRA TRELLES CERVETTO

Alejandra, 2009 urtetik Uruguayko Nazioarteko Zinemaldiaren zuzendaria da. Uruguayko Zinematekak antolatua, jaialdi honek apirilean 37. urteurrena beteko du. 2005 urtetik, Montevideon dagoen Uruguayko Zinematekan programatzailea da. Cine a Pedal jaialdiko zuzendaria, aire zabalean egiten den jaialdi tematikoa, zeinean proiektioetarako pedalei eraginez sortzen den energia soilik erabiltzen den. Pianoarekin lagundutako zinema mutu zikloak eta zine eta jazz emanaldiak programatu ditu. *Cine de Punta del Este* (Uruguay) jaialdiko zuzendaria izan zen 15. ediziotik 18.era eta gaur egun Santiago de Compostelako *Festival Cineuropa* jaialdiko programatzailea da. Epai-mahaikide lanak egin ditu hainbat zinemalditan (Karlovy Vary, BAFICI edo Berlinale, besteak beste). Itzultzailea eta irakaslea da eta hainbat egunkaritan kultur kazetari lanak egiten ditu, batez ere, "La Diaria" Uruguayko egunkarian eta "Brecha" astekarian.

Alejandra ha sido, desde el año 2009, la directora del Festival Cinematográfico Internacional del Uruguay, organizado por Cinemateca Uruguay que en abril llegará a su 37ª edición. Desde 2005, es programadora de la Cinemateca Uruguay, institución cultural con sede en Montevideo. Es la directora del Festival de Cine a Pedal, festival temático con pantallas al aire libre y para el que sólo se usa la energía del pedaleo para alimentar las proyecciones. Además ha programado ciclos de cine mudo con piano o cine y jazz con recitales acompañados de conciertos. Ha sido la directora de programación del festival de Cine de Punta del Este (Uruguay), desde la 15ª hasta la 18ª edición, y actualmente es programadora del Festival Cineuropa de Santiago de Compostela. Ha participado como jurado en varios Festivales de Cine (entre ellos Karlovy Vary, BAFICI o Berlinale). Es traductora y docente y colabora como periodista cultural en diversos medios de prensa sobre todo el periódico uruguayo "La Diaria" y el semanario "Brecha".





## ANNA SOLÀ ARGUIMBAU

Anna Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko Multimedia Eskolako Zinema, Bideo eta Telebista irakaslea izan da. Zinema pedagogia eta kritika arloetan egin du lan. *Insitut Català de les Dones (Generalitat de Catalunya)* institutuko zuzendari exekutiboa izan zen eta Trama (Estatuko emakumeen zinema jaialdien koordinatzailea) elkartearen sortzaileetako bat. *Cuadernos de Pedagogía* aldizkariko *Pensar el cine* atalean kolaboratu zuen eta Drac Màgic-eko (Ikus-entzunezko Bitartekoan Kooperatiba Sustatzailea) eta *Mostra Internacional de Films de Dones*-eko edukien zuzendarikidea izan zen. Honez gain, Kataluniako Zinema Akademiaren ohorezko kidea da.

Anna ha sido profesora asociada de Cine, Vídeo y Televisión en la Escuela Multimedia de la Universidad Politécnica de Catalunya. Ha trabajado en el campo de la crítica y la pedagogía cinematográfica. Fue directora ejecutiva del Institut Català de les Dones (Generalitat de Catalunya) y una de las fundadores de Trama (Coordinadora de festivales de cine de mujeres del Estado). Colaboró en la sección Pensar el cine, de la revista Cuadernos de Pedagogía y fue codirectora de contenidos de Drac Màgic (Cooperativa Promotora de Medios Audiovisuales), así como de la Mostra Internacional de Films de Dones). Es, además, miembro de honor de la Acadèmia Catalana de Cinema.



## ARRI GRANADOS CÁRDENAS

Arri, Mediapro taldearen parte den K2000 euskal ekoiztetxearen Edukien Departamentuko Zuzendaria da. UPV/EHUko Unibertsitatean Informazio Zientzietan lizentziatua eta Deustuko Unibertsitatean Geografia eta Historian lizentziatua, Mondragon Unibertsitateko MBA Executive masterduna da. Ikus-entzunezko arloan 20 urte baino gehiago esperientzia du, batez ere Euskal Herrian. Bere ibilbidean zuzeneko informazio saio ugari, enretrenimenduzkoak, erreportaiak, fikziozko serieak eta dokumentalak zuzendu ditu.


Arri es Directora del Departamento de Contenidos de K 2000, productora vasca perteneciente al Grupo Mediapro. Licenciada en Ciencias de la Información por la UPV/EHU y Licenciada en Geografía e Historia por la Universidad de Deusto cuenta con un MBA Executive por la Universidad de Mondragón. Más de 20 años de experiencia en el campo audiovisual, especialmente en País Vasco, en lo que ha producido muchos programas en directo de corte informativo, de entretenimiento, reportajes series de ficción y documentales.



## BELÍ MARTÍNEZ

Vigoko Unibertsitatea Ikus-entzunezko komunikazioan doktorea eta bertako irakaslea da Dokumentalaren teoria eta teknika ikasgaiari. Ikus-entzunezko ekoizpenarekin uztartzen duen lana. Bere lanen artean aipagarriak dira *Arraianos*, *Vikingland* edo *Jet Lag*, *Novo Cinema Galego* korrontearen lan goraipatuak. Lan hauek narratiba eta forma zinematografikoen inguruan hausnarketa egiten dute eta nazioartean mailan jaialdi prestigioetsuenetako batzuetan aurkeztu dira. 2012 urtetik aurrera, Proxecto Socheo garatzen ari da Xurxo Chirro-rekin batera A Guardako artxibo nazionala osatzen, zeinak Kultur Ministerioak ematen duen Ikus-entzunezko Alfabetazearen 1. saria lortu zuen. 2016 urtean, Xisela Franco-rekin batera emakume zinemagile galiziarrek ikustaraztea helburu duen *Cinema e Muller* proiektua koordinatu zuen. Gaur egun, Eloy Encisoren (*Longa Noite*) eta Helena Girón eta Samuel Delgadoren (*Eles transportan a morte*) film luzeetan ari da lanean.

Doctora en comunicación audiovisual por la Universidad de Vigo donde imparte la materia de Teoría y técnica del documental, tarea que compagina con la producción audiovisual. Destaca su trabajo en varios de los largometrajes más relevantes del Novo Cinema Galego como *Arraianos*, *Vikingland* o *Jet Lag*. Obras que indagan en las narrativas y en las formas cinematográficas y que se han presentado en algunos de los festivales más prestigiosos a nivel internacional. Desde el año 2012 desarrolla con Xurxo Chirro Proxecto Socheo, archivo audiovisual de A Guarda, que obtuvo el Primer Premio de Alfabetización Audiovisual otorgado por el Ministerio de Educación. En 2016 junto con Xisela Franco coordina el proyecto *Cinema e Muller* que trata de visibilizar a las mujeres realizadoras gallegas. En la actualidad trabaja en los próximos largometrajes de Eloy Enciso (*Longa Noite*) y de Helena Girón y Samuel Delgado (*Eles transportan a morte*).



## MAUI ALENA

Maui Alena Buenos Aireseko Arte Gaztearen Bialaren koordinatzailea (50 artista gazte pasatu dira bertatik bi ediziotan) eta Recoleta Kultur Zentroaren programatzailea da. Bertan, azken hiru urteetan 60 film argentinari baino gehiago erakutsi dituzte, eta Raymond Depardon, João Moreira Salles edota James Benning zuzendarien presentzia lortu dute euren lanen emaladiak lagunduz. Aurretik, BAFICI-ko sei ediziotan egin du lan produktore artistiko eta Arlo Profesionalaren koordinatzaile moduan, *Festival Mar del Plata* jaialdian programazio lantaldearen laguntzailea izan da zazpi urtez, eta bi alditan Bs. As. Film Commission-ean misio komertzialak antolatu ditu Cannes eta Berlineko jaialdietara.

Maui Alena trabaja como coordinador audiovisual en la Bienal de Arte Joven de Buenos Aires, donde en dos ediciones han pasado 50 directores jóvenes con proyectos en desarrollo y como programador del cine del Centro Cultural Recoleta, espacio en el que en los últimos tres años se han exhibido más de 60 películas argentinas y ha contado con la presencia de directores como Raymond Depardon, João Moreira Salles o James Benning acompañando sus obras. Anteriormente trabajó en seis ediciones del BAFICI como productor artístico y coordinador del Área Profesional; en el Festival de Mar del Plata asistiendo al equipo de programación durante 7 años y en la Bs. As. Film Commission donde organizó misiones comerciales a los festivales de Cannes y Berlín en dos ocasiones.



## MERCEDES ÁLVAREZ

Mercedes Álvarezek *El cielo gira* (2005) izeneko bere lehen lanarekin kritikaren onspena eta nazioarteko sari ugari lortu zituen, hala nola, TIGER AWARD saria Rotterdam Zinema Jaialdian, GRAN PRIX saria Cinéma du Réel (París) jaialdian, Epai-mahaiaren, Publikoaren eta FIPRESCI sariak BAFICI jaialdian e.a. 2010 urtean *Cinco elementos para cualquier universo* paisaiari buruzko poema-saiakera egin zuen. Bere bigarren film luzea, *Mercado de futuros* (2011) nazioarteko 30 zinema jaialdi baino gehiagotan erakutsia izan da. *Miradas nuevas* saria eman diote Visions du Réel (Nyon, Suiza) jaialdian, Epai-mahaiaren Aipamen Berezia BAFICI-n, Dokumental Onenaren Saria Nanteseko jaialdian eta La Navaja de Oro, Luis Buñuel saria errebelazio filmari 2012 urtean. 2013an, Francesc Torresekin batera sailkatua izan zen Veneziako Biennalean *"25% Catalonia at Venice"* lanarekin. Mercedes Cinema en Curs programaren kolaboratzailea da eta Sormenezko Dokumental Masterraren irakaslea UPF-n.

Mercedes Álvarez obtuvo el reconocimiento unánime de la crítica con su primer largometraje, *El cielo gira* (2005), y numerosos premios internacionales como el TIGER AWARD en el Festival de Cine de Rotterdam, el GRAN PRIX en el Cinéma du Réel (París), Premio del Jurado, Público y FIPRESCI en el BAFICI, entre muchos otros. En 2010, realizó el poema-ensayo sobre el paisaje *Cinco elementos para cualquier universo*. Su segundo largometraje, *Mercado de futuros* (2011) ha sido exhibido en más de 30 festivales internacionales. Ha obtenido el premio "Miradas Nuevas" en el Festival Visions du Réel (Nyon, Suiza), Mención Especial del Jurado en el BAFICI, Mejor documental en el festival de Nantes y La Navaja de Oro, Luis Buñuel a la película revelación 2012. En el 2013, fue seleccionada junto a Francesc Torres en el pabellón de la Biennale de Venecia con la obra "25% Catalonia at Venice". Mercedes es colaboradora del programa Cinema en Curs y es profesora del Máster de Documental de Creación de la UPF.



## VIRGINIA GARCÍA DEL PINO

Zuzendaria eta artista, Virginia *"nuevo cine de autor español"* korrontearen parte da eta UAB-en Sormenezko Dokumental Masterraren irakaslea da. Bere lanek ibilbide zabala izan dute nazioarteko jaialdietan eta Arte Garaikideko Zentruetan. 2008 urtean hainbat sari lortu zituen *Lo que tú dices que soy* lanagatik. Bere lehen film luzea, *El jurado* (2012) FID Marsellako sail ofizialean, FIC Valdívian eta Punto de Vistan egon zen. Bere *La 10a carta* (2014) film luzea, Donostiako Zinemaldian estreinatua, Basilio Martín Patino zinegile kontsagratuaren erretratua da. 2018 urtean, *Improvisaciones de una ardilla* Malagako jaialdiko Zilarrezko Biznaga lortzen du eta Bombas Gens arte zentruan *Respirar, correr, mirar* lana erakusten du.

Directora y artista, Virginia forma parte del "nuevo cine de autor español" y es docente en el Máster de documental creativo de la UAB. Su obra tiene un amplio recorrido internacional en festivales y en Centros de Arte Contemporáneo. En 2008 recibió varios galardones por *Lo que tú dices que soy*. Su primer largometraje, *El Jurado* (2012) estuvo en la sección oficial de FID Marsella, FIC Valdivia y Punto de Vista. Su película, *La 10a carta* (2014), estrenada en el Festival de San Sebastián, es un retrato del consagrado cineasta Basilio Martín Patino. En 2018, *Improvisaciones de una ardilla* recibe la Biznaga de plata al mejor cortometraje documental en el festival de Málaga, y expone en el centro de arte Bombas Gens con la obra *Respirar, correr, mirar*.



# AZTARNAK - HUELLAS

**ekoizpen urtea / Año producción:** 2019

**iraupena / Duración (min.):** 90'

**Jatorrizko bertsioa / Versión Original:** Euskara, castellano, inglés

**ekoiztetxea / Productora:** Lumiere Produktzioak

**Zuzendaritza / Dirección:** Maru Solores

**Gidoia / Guion:** Maru Solores

**ekoizlea / Producción:** José M<sup>a</sup> (Txepe) Lara

**Argazki zuz. / Dir. Fotografía:** Javier Agirre, Frank Amann

**Kontaktua / Contacto:** marusolores@gmail.com

Haurtzaroan ereiten ote da giza zorientasunaren hazia?

Aspaldian ahaztu dugun leku batera doan bidaia bat da hau: amaren sabelean ginenekoa, jaiotza eta haurtzaroaren lehen urteak, alegia. Behin izan nintzen haurtxoaren ikuspuntu poetikoa erabiliz, eta ama gisa izan ditudan esperientziei buruz hausnartuz, ahaztutako sentipenen aztarnen bila joango naiz.

Dokumentalak haurtxoaren ikuspuntu subjektiboa eta protagonisten ikuspuntuak (famihiak eta hainbat alorretako adituak) konbinatuko ditu".

¿La semilla de la felicidad se siembra en la infancia?

Los primeros años de nuestra vida, aquellos que no recordamos, nos dejan una profunda huella. Pero, ¿esta huella es para siempre? ¿O acaso evoluciona? Este es un viaje personal a ese lugar olvidado; un viaje desde la madre que soy ahora, hasta el bebé que una vez fui.

Un documental que combina el mundo subjetivo de un ser humano en el inicio de la vida y un diálogo con familias y expertos de diversas disciplinas.



## BELEAK

**Ekoizpen urtea / Año producción:** 2019  
**Iraupena / Duración (min.):** 60'  
**Jatorrizko bertsioa / Versión Original:** Euskera  
**Ekotzetxea / Productora:** Al Borde Films  
**Zuzendaritza / Dirección:** Ana Serna, Maialen Oleaga  
**Gidoia / Guion:** Maialen Oleaga  
**Ekoizlea / Producción:** Maialen Oleaga  
**Argazki zuz. / Dir. Fotografía:** Ana Serna  
**Musika / Música:** Hatxe  
**Soinua / Sonido:** Iosu Gonzalez  
**Muntaketa / Montaje:** Paula Iglesias  
**Kontaktua / Contacto:** info@albordefilms.com

Egonezinak eta gaur egungo gizartea ulertzeko goseak eraginda, Myanmarrera abiatzen da dokumental honen protagonista George Orwellen liburu batek bultzatuta. Galdera bat du buruan biraka: Nola da posible hain gutxi jakitea, hain nabarmena den hori guztia begien bistan izatean? Hauxe da "Orwellen gatazka", honek komunikabide eta estatu autoritarioen arteko maitasun harremanaz hausnartzen zuen bere lanetan. Eta demokrazian zer? Idazle honen pausuen atzetik doa protagonista, beleen begiradapean.

La protagonista del documental viaja a Myanmar empujada por un libro de George Orwell sedienta de respuestas para poder entender la actualidad. Una pregunta le invade: ¿Cómo es posible saber tan poco teniendo tantas evidencias de la realidad? A esto lo llaman "El problema de Orwell". Éste reflexionaba en torno a la relación romántica entre medios de comunicación y estados autoritarios ¿Y en democracia qué? La protagonista camina tras los pasos del escritor bajo la mirada atenta de los cuervos.



## BIDEAN JARRAITUZ

---

**ekoizpen urtea / Año producción:** 2019  
**iraupena / Duración (min.):** 75'  
**Jatorrizko bertsioa / Versión Original:** Euskera, castellano  
**Ekotetxea / Productora:** Luces Del Ayer Producciones  
**Zuzendaritza / Dirección:** Aitor Lopez de Aberasturi  
**Gidoia / Guion:** Ainhoa Urgoitia, Aitor Lopez de Aberasturi  
**ekoizlea / Producción:** Ainhoa Urgoitia  
**Argazki zuz. / Dir. Fotografía:** Kenneth Oribe  
**Musika / Música:** Bingen Mendizabal  
**Soinua / Sonido:** Sonora Estudios  
**Muntaketa / Montaje:** Aitor Lopez de Aberasturi  
**Kontaktua / Contacto:** onthefloor@hotmail.es

Bingen Mendizabal musika konpositoreak Bernardo Atxaga idazleari buruzko dokumental baten soinu banda egiteko enkargua jaso du. Denbora da Bingen ohartu dela, krisi ekonomikoaren eraginez, lan gutxi egiten duela zinemarako, eta enkargu berri honek oroitzapenak berrituko dizkio eta 80ko hamarkatik gaur arte Euskal Herrian egin duen zinema- eta musika- ibilbideak gogoratu-ko ditu. Begirada horretan, Bingenen gogoeta da gai nagusia: zer da benetan arrakasta, norberaren bideari jarraitzea.

El compositor musical Bingen Mendizabal recibe el encargo de hacer la banda sonora de un documental sobre el escritor Bernardo Atxaga. Hace tiempo que se ha dado cuenta de que, a causa de la crisis económica, hace pocos trabajos para el cine y este encargo va a revivir sus memorias y recordar su trayectoria en el cine y la música desde los años 80. En esa revisión, el tema principal es la reflexión de Bingen: seguir el camino trazado por uno mismo, ese es el verdadero éxito.



# ITOIZ

**Ekoizpen urtea / Año producción:** 2019

**Iraupena / Duración (min.):** 90

**Jatorrizko bertsioa / Versión Original:** Euskera, castellano

**Ekoztetxea / Productora:** Doxa Producciones

**Zuzendaritza / Dirección:** Larraitz Zuazo

**Gidoia / Guion:** Larraitz Zuazo, Ainhoa Andraka, Zuriñe Goikoetxea

**Ekoizlea / Producción:** Zuri Goikoetxea, Cristina Hergueta, Ainhoa Andraka

**Musika / Música:** Joseba B. Lenoir, Itoiz

**Soinua / Sonido:** Xanti Salvador

**Muntaketa / Montaje:** Larraitz Zuazo, Ainhoa Andraka

**Kontaktua / Contacto:** zuri.goikoetxea@doxaproducciones.com

70. hamarkada bukatzeaz zegoela, bazen Mutrikun gazte bat, rock talde bat sortzeko gogoak jota. 10 urte geroago euskal eszenako erreferente zen Itoiz, plazak bete eta salmenta errekorrak gaindituta. 1988-ean, Juan Carlos Perezek banda bertan behera uztea erabaki zuen. Luzaroan bere istorioa kontatzeko proiektuak ezeztatu ostean, Juan Carlosek Itoizen inguruko dokumentala egitea erabaki du, zikloa behingoz utzi eta eta taldearen inguruan azken aldiz hitz egiteko.

A finales de los 70, un chaval de Mutriku montaba una banda de rock. Diez años más tarde, ese grupo llenaría estadios, rompiendo récords de ventas, convirtiéndose en uno de los referentes del panorama musical vasco: Itoiz.

En 1988, Juan Carlos Pérez decidió que la aventura llegaba a su fin. Desde entonces, ha recibido y rechazado numerosas propuestas para contar su historia. Ahora, ha decidido cerrar el ciclo, haciendo un documental, a modo de ritual, para hablar por última vez sobre Itoiz.



# MESETA

---

**ekoizpen urtea / Año producción:** 2019

**iraupena / Duración (min.):** 94'

**Jatorrizko bertsioa / Versión Original:** Castellano

**Ekotzetxea / Productora:** Doxa Producciones

**Zuzendaritza / Dirección:** Juan Palacios

**Gidoia / Guion:** Juan Palacios

**ekoizlea / Producción:** Ainhoa Andraka, Zuri Goikoetxea, Cristina Hergueta

**Argazki zuz. / Dir. Fotografía:** Juan Palacios

**Soinua / Sonido:** Juan Palacios

**Muntaketa / Montaje:** Juan Palacios

**Kontaktua / Contacto:** [ainhoa.andraka@doxaproducciones.com](mailto:ainhoa.andraka@doxaproducciones.com)

Spainiar mesetaren tokiren batean artzain batek Titikakara bidaiatzerekin amesten du, bikote musikal erretiratu batek bere urrezko garaiak gogoratzen ditu, neskato bik pokémonak bilatzen dituzte arrakasta barik, eta aitona batek herriko etxe hutsak zenbatzen ditu loak hartzeko. Begirale moduan eta ukitu kostunbrsita, ia surrealistarekin, MESETA-k bidaia sensoriala proposatzen du denboran desegiten direla ematen duen kultura eta bizitza estilodun lurralde batean zehar.

En algún lugar de la meseta española un pastor de ovejas sueña con viajar al Titicaca, un dúo musical retirado recuerda su época dorada, dos niñas buscan pokémons sin suerte y un abuelo recuenta las casas vacías del pueblo para quedarse dormido. En tono observacional y de costumbrismo casi surrealista, MESETA propone un viaje sensorial por un territorio cuya cultura y estilo de vida parecen desvanecerse en el tiempo.





## MURU (SEMILLAS)

---

**Ekoizpen urtea / Año producción:** 2018  
**Iraupena / Duración (min.):** 40'  
**Jatorrizko bertsioa / Versión Original:** Español, quechua  
**Ekotzetxea / Productora:** Proyecto Wakaya  
**Zuzendaritza / Dirección:** Joseba Urrutikoetxea  
**Gidoia / Guion:** Proyecto Wakaya  
**Ekoizlea / Producción:** Celia Vazquez  
**Argazki zuz. / Dir. Fotografía:** Joseba Urrutikoetxea  
**Soinua / Sonido:** Ignacio Espinoza, Alejandra Gayol  
**Muntaketa / Montaje:** Ulises Gutierrez  
**Kontaktua / Contacto:** urruti61@gmail.com

Perun, 90. Hamarkadan, 300.000 emakume baino gehiago indarrez antzutuak izan ziren, herri-aldeko biztanleria xumea desagertarazteko helburuarekin. Biktima horietako bat izan zen Inés Condori, kitxua hiztuna eta nekazaria. Gaur, bere udalerrria den Chumbivilcas-en (Cusco) 200 emakume baino gehiago biltzen dituen elkarte baten bozaramaile nagusia da, Alberto Fujimori presidente ohia justizia aurrera eramatea bere kalteak behar bezala ordain ditzan eta euren pekamen pertsonalak konpontzeko eskatuz.

En la década de los 90, más de 300.000 mujeres fueron esterilizadas a la fuerza en Perú, con el objetivo de acabar con las poblaciones más humildes del país. Inés Condori fue una de esas víctimas campesinas e indígenas quechua hablantes. Hoy, en su municipio de Chumbivilcas (Cusco) lidera una asociación con más de 200 afectadas que exigen reparación y que el expresidente Alberto Fujimori sea llevado ante la justicia y pague por sus actos contra la población peruana.



## UN TIPO DIFERENTE

---

**ekoizpen urtea / Año producción:** 2019

**iraupena / Duración (min.):** 80'

**Jatorrizko bertsioa / Versión Original:** Castellano

**ekoiztetxea / Productora:** Marmoka Films

**Zuzendaritza / Dirección:** Alex García de Vicuña

**Gidoia / Guion:** Alex García de Vicuña, Gentzane Martínez de Osaba

**ekoizlea / Producción:** Gentzane Martínez de Osaba

**Argazki zuz. / Dir. Fotografía:** Aner Etxebarria, Aitor Aspe, Pere Pueyo

**Musika / Música:** Vincent Barriere

**soinua / Sonido:** Rafa del Campo

**Muntaketa / Montaje:** Olaia Nogales

**Kontaktua / Contacto:** gentzane@marmokafilms.com

Algortako Portu Zaharrean 83 urteko gizon bat bizi da, Eduardo Larrea, Carolo bezala ezaguna. Hainbat izan dira bere historioak entzun dituztenak baina hain dira bitxiak eta sinetsgaitzak, inork ez dituela sinesten. 2013. urtean, gazte bik, zine ikasketak amaitu eta Caroloren bizitza dokumentatzen hasiko dira. Ohartu gabe, bi gazteak bidaia fantastiko batean murgilduko dira eta bere historioak benetazkoak direla deskubrituko dute.

En el puerto viejo de Algorta, vive un hombre de 83 años, Eduardo Larrea, más conocido como Carolo. Sus increíbles anécdotas han sido escuchadas por varias generaciones, pero sus historias son tan fantásticas, que poca gente se las cree. En 2013, dos jóvenes recién terminan su carrera de cine y empiezan a documentar la vida de Carolo. La curiosidad hará que se enrolen en un viaje para descubrir cuanto de verdad hay en las historias que cuenta, y descubrirán que tienen mucho de verdad.



# WAN XIA, LA ÚLTIMA LUZ DEL ATARDECER

**Ekoizpen urtea / Año producción:** 2019

**Iraupena / Duración (min.):** 80'

**Jatorrizko bertsioa / Versión Original:** Chino cantonés, castellano

**Ekotzetxea / Productora:** Kubelik Films

**Zuzendaritza / Dirección:** Silvia Rey

**Gidoia / Guion:** Silvia Rey

**Ekoizlea / Producción:** Luis Angel Ramirez

**Argazki zuz. / Dir. Fotografía:** Javier Bilbao

**Musika / Música:** Canciones populares chinas

**Soinua / Sonido:** Roberto Fernandez

**Muntaketa / Montaje:** Fernando Franco, Silvia Rey

**Kontaktua / Contacto:** lramirez@kubelikfilms.com

Txinara aurki egingo duen bidaia dela eta, Chen Jianguo jauna lagunekin biltzen da agur esateko. Userako zahar txinatarren klubaren bizitza aztoratu egin da udaberriko festaren prestaketak eta zenbait arazo tekniko direla medio. Egoera geroz eta kaotikoagoa bihurtuko da, dokumentala errodatzen ari den lantaldea filmaketa txinan jarraitzea erabakitzen duen arte. Gauzak horrela, Jian Pingliu hildakoaren arima harrapatuta zegoen zentrutik atera eta Qingtianera, bere jaioterrira, itzuli ahal izango da behingoz.

El señor Chen Jianguo se despidе de sus amigos ante su próximo viaje a China. Los preparativos para la Fiesta de la Primavera y una serie de problemas técnicos disturban la vida del club de mayores chinos de Usera. La situación se va volviendo cada vez más caótica hasta que el equipo del documental decide trasladar el rodaje a China, y el fantasma del fallecido Jian Pingliu al fin puede salir del centro donde su espíritu se había quedado atrapado y volver a Qingtian, su ciudad de origen.

**B**  
Bilbao

epe . apv

eskari produktoreen elkartea • asociación de productores visuales

 Bizkaia  
beaz

 eitb